

## Bestelako lankidetzak

# Hezkuntza-laguntza espezifikoak eta irisgarritasuna: helduen euskalduntzerako zenbait helduleku<sup>1</sup>

Unibertsitatetik kanpoko eskolatzere-eredu bat proposatzen du Euskal Hezkuntza-sistemak, hezkuntza pertsona guztiengana iristeko eta ikuspegi inklusibotik modu pertsonalizatuan erantzuteko. Horrela, hezkuntza-laguntza espezifikoak behar dituzten ikasleen erregistroa egiten ari dira, haien tipologiaren arabera, eta askotariko beharrei hezkuntza-erantzuna ematen. Unibertsitateak ere ildo beretik ari dira, aurretiko hezkuntza-mailetan emaniko laguntzekin bat egiten. Izan ere, “irisgarritasun unibertsala”, “irisgarritasun kognitiboa” eta “Ikaskuntzaren Diseinu Unibertsala” kontzeptuek paradigma-aldaketa ekarri dute. Euskadik ere irisgarritasun unibertsala bultzatzeko konpromisoa dauka hartuta eta bizialdi osoko ikaskuntzaren legean orientazio-sistema integratua planteatu zen. Bestalde, euskara ikastea edo hobetzea aukera bat da 16 urtetik aurrera eta oso garrantzitsua da zeregin honetan pertsona guztiei behar duten hezkuntza-laguntza ematea eta baliabideak jartzea. Artikulu honetan, esparru horretarako zenbait helduleku proposatuko dira.

### Gako-hitzak

bizialdi osoko ikaskuntza, helduen euskalduntzea, hezkuntza-laguntzako berariazko premiak, Ikaskuntzaren Diseinu Unibertsala, irisgarritasuna

## 0. SARRERA

Ikastea bizitza osoan zehar egiten den jardura da; alegia, ez da soilik, eskola-urteetara edo bizitzako fase bakar batera mugatzen. Gainera, testuinguru ezberdinetan gertatzen da: hezkuntza formalean, ez-formalean eta informalean (European Parliamentary Research Service, d.g.).

Ikasteko orduan zailtasunak edo egoera bereziak egon daitezke, eta horiek guztiak egoki artatzea komeni da. Bestela esanda, hezkuntza-laguntzak ematea komeni da; berariazkoak edo espezifikoak esan ohi zaie. Honela, Euskadiko Eskola Kontseiluak

<sup>1</sup> Nire eskerrik beroenak Iñaki Murua eta Alex Mungiari, egingako iradokizunengatik eta bidean emandako laguntza guztiarengatik

(2022) dioenez, unibertsitatez kanpoko Euskal Hezkuntza-sistemak, eskolatzere-eredu bat proposatzen du, hezkuntza pertsona guztiengana iris dadin ikaskuntza-ingurune egokietan. Zeregin horretarako, funtsezkoa da premiak zein diren antzematea eta, ondorioz, zailtasunak sistematikoki identifikatzeko estrategia. Era berean, ikasleen ikasketek aurrera egin dezaten, baliabide espezifikoko asko erabiltzen da, profesional eta programa ugari jartzen baita martxan. Gainera, 2020. urteaz geroztik, hezkuntza-laguntzako premia espezifikokoak dituzten ikasleei dagokienez, prozedura berria dute unibertsitatez kanpokoak diren eta funts publikoak duten Euskadiko ikastetxe guztiek. Prozedura horren bidez, aukera-berdintasunaren izenean eta inklusioaren printzipioari jarraituz, ikasleen desberdintasuna kontuan hartzen du eskolak. 2020ko Ebazpenaren arabera berrikusten ari dira araudia eta eskolei baliabideak emateko eredia eguneratzen. *Red Sapdu* sarearen esanetan (2020), unibertsitateetan ere ildo horretatik doaz.

Bestalde, *Eskola Inklusiboa garatzeko Esparru Plana 2019-2022* dokumentuan esaten denez, "ikuspegi inklusibotik modu pertsonalizatuan erantzuteko, beharrezkoa da ikasle guztientzat balio duten estrategiak sustatzea eta haien garapen pertsonal eta akademikoa mugatu dezaketen oztupoak ezabatzea" (Eusko Jaurlaritzak, Hezkuntza Saila, 2022a, 7. or.). Azken finean, paradigma-aldaketa bat planteatzen da ikasteko eta parte hartzeko oztupoak gainditzeko. Planaren arabera, neurri integralak eta egiturazkoak biltzen dira eskola-testuinguruan.

Paradigma-aldaketak zerikusi handia izan du aurrerago azalduko ditugun bi kontzeptu-erkin: irisgarritasun unibertsalarekin eta Ikaskuntzaren Diseinu Unibertsalarekin (IDU). Irisgarritasun unibertsalari dagokionez, Euskadik berori bultzatzeko konpromisoa hartu zuen 2017ko abenduan, Legearen aurretik zegoen konpromisoa berretsiz (ISEK, 2020). Konpromiso horretan, desgaitasunen bat duten pertsonen parte-hartzea bermatzea eskatu zitzaizen erakunde publiko eta pribatuei; horretarako, irisgarritasun unibertsala sustatzeko politikak eta ildoak diseinatu, betearazi, jarraitu eta ebaluatzea eskatzen zen.

16 urtetik aurrera euskaraz alfabetatzen jarraitzea edo euskaraz ikasten hastea apustu garrantzitsua da pertsona guztientzat, baita euskararen osasunarentzat ere. Hezkuntza-laguntza berriazko premiak izan ala ez, pertsona guzti-guztiak behar ditugu zeregin horretan. Gainera, urriaren 10eko 1/2013 Bizi-aldiko Osoko Legearen xedeetako bat hau da: euskal herritar guztiei berdintasunez bermatzea bizitza osoan zehar ikastea. Horretarako, orientazioa berebizikoa dela aipatzen da. Aintzat har dezagun helduen euskalduntzea (HABE, euskaltegiak eta autoikaskuntzarako zentro homologatuak...) Bizi-aldiko Osoko Ikaskuntzaren euskal sistemaren barruan dagoela.

Edonola ere, hezkuntza-laguntza espezifikokoak bizitza osoan zehar eman ahal izateko, kasu honetan helduen euskalduntzearen testuinguruan, bitarteko eta baliabide ugari behar dira. Arestian azaldu den legez, bitarteko horiek zehazten ari dira unibertsitatez kanpoko ikastetxeetan, unibertsitateetan eta beste erakunde batzuetan. Horien prozedurak eta praktika onak helduleku garrantzitsuak izan daitezke helduen euskalduntzerako.

## 1. HEZKUNTZA-LAGUNTZAKO BERARIAZKO PREMIAK DITUZTEN IKASLEEN TIPOLOGIAK, PROZEDURAK ETA LAGUNTZA-GIDAK

Nazio Batuen *Garapen Jasangarriko 2030 Agendak* 17 helburu ditu. Laugarrena kalitatezko hezkuntzari buruzkoa da (<https://www.un.org/sustainabledevelopment/es/education/>) eta hamargarrenak, berriaz, desberdintasunak murrizteaz dihardu (<https://www.un.org/sustainabledevelopment/es/inequality/>).

Laugarren helburuan esaten denez, haurren eta desgaitasunen bat duten pertsonen beharrak eta genero-desberdintasunak kontuan hartzen dituzten hezkuntza-instalazioak eraiki eta egokitzea komeni da, denontzat ikasteko ingurune seguruak, indarkeriarik gabekoak, inklusiboak eta eraginkorrak eskaintzen dituztenak. Bestalde, hamargarren helburuan esaten denez, 2030. urterako pertsona guztien inklusio sozial, ekonomiko eta politikoa hobetzea eta sustatzea bilatzen da, adina, sexua, ezintasuna, arraza, etnia, jatorria, erlijioa edo egoera ekonomikoa edo beste edozein dela ere. Euskal hezkuntza-sistema bi helburu hauekin eta beste batzuekin konprometuta dago ([https://www.euskadi.eus/berariazko-hezkuntza-laguntza-premiak\\_eu/web01-a3hinklu/eu/](https://www.euskadi.eus/berariazko-hezkuntza-laguntza-premiak_eu/web01-a3hinklu/eu/)).

Ekitatean oinarritutako hezkuntzak eta inklusiboak denak ikasleei beren potentzial osoa lortzen laguntzen die (Cerna, 2023) eta, horretarako, ikasle orenen irakaskuntza berariaz prestatzea komeni da. “Berariaz” hitzak zenbait adiera ditu. Adiera bat borondateak eraginda egin denari buruzkoa da, ez oharkabez edo ustekabeaz; beste adiera bat aipatzen den helburuaz soilik edo bereziki egin denari buruzkoa, edo zerbaitetarako bereziki sortzen edo erabiltzen denari buruzkoa (Euskaltzaindia, d.g.). Hortaz, hezkuntza-laguntzak berariazkoak izan daitezke, egoera edo kasu baterako berariaz pentsatutakoak izan direnean edo bereziki egin denean. Terminologia anitza erabiltzen da kontzeptu honen inguruan, adibidez, *hezkuntza-laguntzako berariazko premiak* (HLBP), *berariazko hezkuntza-laguntza premiak dituzten ikasleak* (BHLP), *hezkuntza-laguntza premia espezifikokoak dituztenak* (HLPE) eta *hezkuntza-premia bereziak*. **HLBP** laburdura erabiliko da hemendik aurrera artikulua honetan.

Euskadiko ikastetxeetan HLBP ikasleen identifikazio-kopuruek gorantz egin dute 2016-2019 tartean (Euskadiko Eskola Kontseilua, 2022); Euskal Herriko Unibertsitatean (EHUn) ere halaxe gertatzen da (EHU. Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzua, d.g.).

Jarraian, borondatez, pentsatuta edo bereziki eskaintzen den hezkuntza-laguntza nori ematen zaion eta nola antolatzen den ikusiko dugu hezkuntza-maila desberdinetan.

2020ko Ebazpenaz geroztik, Euskadin, unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzako ikastetxeetan, HLBP ikasleak *Hezkuntza Laguntzako Premia Berezien Aplikazioa* deritzon aplikatibo berean<sup>2</sup> erregistratzen dituzte bi multzo nagusitan:

1. hezkuntza-beharrizan bereziak dituzten ikasleak;
2. erregistro berrian, hezkuntza-laguntzako behar espezifikokoak dituzten ikasleak.

Ondoren, *Norbanako Jarduera Plana* finkatzen da (Orientasare, d.g., a).

Hezkuntza-beharrizan bereziak dituzten ikasleei dagokienez, ezgaitasun bat edo jokatibide-nahasmen larri bat izan ohi dute (Orientasare, d.g., b). Ezgaitasunaren errekonozimendua, deklarazioa eta kalifikazioa Dekretu bidez arautua dago 2022ko urritik Espainian. Desgaitasunaren balorazioa foru-aldundiek kudeatzen dute, baina eskatzailea erroldatuta dagoen udalerriko oinarritzko gizarte-zerbitzuan egiten da eskaera. Prozesua Bizkaiko Foru Aldundiaren webgunean ikus daiteke (<https://www.bizkaia.eus/eu/gaia-xehetasuna/-/edukia/dt/6705>).

Hezkuntza-laguntzako behar espezifikokoak dituzten ikasleen artean, honako hauek daude (Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila, d. g.):

- adimen-gaitasun handia dutenak;
- ikasteko zailtasun espezifikokoak dituztenak (irakurtzeko, idazteko eta/edo kalkulurako);

<sup>2</sup> Ebazpenaren aurretik, W67 izena zuen aplikatiboak

- hezkuntza-sisteman berandu sartu direnak;
- baldintza pertsonalak dituztenak;
- desberdintasun sozialeko egoeran daudenak;
- arreta-defizitaren eta hiperaktibitatearen nahasmenduak dituztenak.

Hala ere, *Orientasaren* esaten denez, 2020ko Ebazpen horretan ez dira agertzen laguntza behar duten kolektibo guztiak. Hauek lagundu behar badira, laguntza hori ikaslearen banakako planean jasotzen da.

Oso present izan behar da ikasketa-prozesuek jarraitu dezaten, baliabide espezifiko asko jartzen dela unibertsitatez kanpoko ikastetxeetan, hala nola orientazio-zerbitzuak, desgaitasunak eta/edo Hezkuntza Laguntzarako Berariazko Premiak dituztenentzako arreta zerbitzuak eta langile espezialistak: Entzumeneko eta Hizkuntzako irakasleak, zeinu-mintzairaren langileak, transkribatzaileak, material-egokitzzaileak, etab. (Eusko Jaurlaritza, 2019; Euskadiko Eskola Kontseilua, 2022).

Espainiako unibertsitateetan araudiak eta prozedura akademikoak ezarri dira inklusioaren izenean, aurretiko ikasketa-mailetan egin dena unibertsitatekoarekin batera etor dadin. Hala, Ezgaitasun Zerbitzuak eta/edo Berariazko Arreta ematen duten zerbitzuak daude; gainera, sare bat osatu da: Red Sapdu (*Servicios de Apoyo a las Personas con Discapacidad en la Universidad*). Argitara emandako gidaren arabera (Red Sapdu, 2020), ezgaitasunei arreta ematek anitzagoa den berariazko arreta ematera pasatzen ari dira unibertsitateak, hots, bilakaera izan dute zerbitzuek. Modu honetan, sarean dauden unibertsitateek prozedura bateratua adostutakoan, gida bat idatzi dute unibertsitateko trantsiziorako, sarbiderako eta ongi etorria zehazteko. Zerbitzu hauek, oro har, ezintasun-ziurtagiria duten ala ez kontuan hartu gabe eskaintzen diete HLBP behar dutenei. Gainera, Rodríguez Infante eta Arroyo Panadero (2017) egileen arabera, desgaitasuna edota behar bereziak dituzten ikasleen heziketari erantzuteko neurri bat da unibertsitateko prestakuntza-programan sarbidea izateko egokitzapena. Honako hauetan dautza egokitzapenak: unibertsitate-curriculumean sarbidea izateko baliabide espazialak, pertsonalak, materialak edo komunikazioaren esparrukoak eskaintzea edota prestakuntza-programako elementuak doitzea, oinarritzaileak zein ez preskriptiboak izan, hala nola denborak, metodologia edo ebaluazio-tipologia. Edonola ere, ez da ikasleen ikaskuntza gutxietsiko, ezta eskakizun-maila jaitsiko ere.

EHU *Sapdu* sarearen barruan dago. Artatzen den tipologia webgunean zehazten da (<https://www.ehu.eus/eu/web/discapacidad>) (ikus 1. irudia); azalpen gehiago ematen dira irakasleentzako gidan (Euskal Herriko Unibertsitatea, d.g). Bertan, ikasleek dituzten ezaugarriak eta ikaskuntzarako estrategiak eta moldaketak zehaztuta daude, besteak beste.

EHUn, lau eremutan egiten da lan, unibertsitate-ikasketetan ikaslearen hezkuntza-premia berezietan erantzuteko: irakaskuntzaren alorrean, azterketen eremuan, irisgarritasunaren esparruan eta orientazioaren arloan. Irakasleek Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzuaren aholkularitza jasotzen dute une oro, eta zenbait gida daude argitaratuta arestian aipatutako webgunean.

## 1. irudia. Euskal Herriko Unibertsitateak webgunean duen hezkuntza-premia berezien sailkapena

UPV/EHuko hezkuntza-premia berezien sailkapena honako hau da:

- ▶ Entzumen desgaitasuna
- ▶ Ikusmen desgaitasuna
- ▶ Desgaitasun fisikoa (motore urrutasunak eta gaixotasun organikoak)
- ▶ Ikasteko Zailtasun Espezifikoak (IZE: dislexia, disortografia, disgrafia, diskalkulia eta hizkuntzaren nahaste espezifikoak)
- ▶ Arreta Gabezia Nahastea-Hiperaktibitatea (AGN-H)
- ▶ Autismoaren Espekto Nahasmena (AEN)
- ▶ Nahaste Psikikoak (NP)



## 2. FUNTSEZKO KONTZEPTUEN AZALPENA

Atal honetan, honako kontzeptu hauek landuko ditugu:

- irisgarritasuna;
- irisgarritasun kognitiboa;
- Diseinu Unibertsala (DU);
- Ikaskuntzaren Diseinu Unibertsala (IDU);
- Irakurketa Erraza;
- Hizkera Argia eta Sistema Handigarriak edo/eta Ordezkoak.

*Irisgarritasuna* aurrebaldintza bat da, ezintasunen bat duten pertsonak, gizonak eta emakumeak modu independentean bizi ahal izateko eta gizartean gutziz parte har dezaten baldintza berdinetan (6/2022 Legea, martxoaren 31koa).

*Irisgarritasun kognitibo* hitza 6/2022 Legean agertzen da era esplizituan Vigara Cerrato *et al.*ek diotenez (2023); izan ere, esplizitua ez zelako ez da oso kontuan hartu orain arte. Legean esaten denez, irisgarritasun unibertsalaren barruan irisgarritasun kognitiboa dago; horren bidez, pertsona guztiak erraz ulertzea, komunikatzea eta elkarreragitea bilatzen da. Irisgarritasuna kognitiboa irakurketa errazaren bidez, sistema handigarri eta alternatiboen bidez, piktogramen bidez eta bestelako giza eta teknologia-bitartekoen bidez egiten da eskuragarri eta zabaltzen da. Halaber, Diseinu Unibertsala edo Pertsona Guztientzako Diseinuaren estrategia dakar berarekin.

*Diseinu unibertsalaren* (DU) definizio hau agertzen da 1/2013 Errege Legean: inguru-neak, prozesuak, ondasunak, produktuak, zerbitzuak, objektuak, tresnak, programak, gailuak edo tresnak jatorritik sortu edo proiektatzen dituen jarduerak da, eta, ahal den guztietan, pertsona guztiak erabil dezakete, ahal den neurrian, egokitzapen edo diseinu espezializatu beharrik gabe. Hala ere, behar direnean, ez dira desgaitasuna duten pertsonen talde jakinentzako laguntza-produktuak baztertuko. Bestalde, Crue elkartearen arabera (2014) DUren ikuspegitik, produktua da pertsonaren behar, ezaugarri edo lehenetasunetara egokitu behar dena eta ez alderantziz.

*Ikaskuntzaren Diseinu Unibertsala* (IDU) laguntza-sistema bat da, ikasle guztiak erraz eskuratzeko moduko curriculum inklusibo bat lantzeko jarraibideak proposatzen dituena (Orientasare, d. g., b). Irakaskuntzarako eredu teoriko-praktiko hau eta bere gidalerroak *Center for Applied Special Technology* (CAST) erakundeak ezarri zituen. Curriculumaren malgutasuna lehenesten du hasieratik; hau da, curriculum hasieratik irekia eta eskuragarria izatea bilatzen du, Extremadurako Juntaren dokumentazioaren arabera (<https://emtic.educarex.es/disen-universal-para-el-aprendizaje-dua>). Giza aniztasunaren ideia abiapuntutzat hartuz, hiru printzipio eta hauekin loturiko jarraibideak proposatzen ditu:

1. printzipioa: “adierazpenerako eta eskuratzeko modu ugari eskaintzea” (zer ikasi). Ikasleak desberdinak dira ematen zaien informazioa hautemateko eta ulertzeko orduan. Adibidez, zentzumen-urritasuna dutenak (itsumena edo gorrieria), ikaskuntzaren zailtasun espezifikokoak dituztenak (irakurketa-zailtasuna, adibidez), desberdintasun linguistiko edo kulturalak, etab. edukietara hurbiltzeko modu desberdinak eskatzen dituzte. Beste pertsona batzuentzat erosoagoa da informazioa entzumen bidez eskuratzeko edo testu inprimatuak erabiltzeko. Hortaz, ez dago ikasle guztientzat onena den bide bakarra eta aukera anitzak eskaintzea komeni da.

2. printzipioa: “ekintza eta adierazpen anitza ematea” (nola ikasi). Ikasleak desberdinak dira ikaskuntza-ingurunean nabigatzeko moduetan eta dakitena adierazteko orduan. Esaterako, pertsona batzuk ondo moldatu daitezke testu idatzia sortzen eta aldiz ahoz gaizki, edo alderantziz. Ez dago, hortaz, denentzat onena den ekintzarako bide bat edo adierazpen-bitarteko egokiena denik, baidak eta ezinbestekoa da ekintzarako eta adierazteko aukerak eskaintzea.

3. printzipioa: “inplikatzeko askotariko formak ematea” (zergatik ikasi). Osagai emozionala ikaskuntzarako funtsezko elementua da, eta ikasleak desberdinak dira inplikatzeko edo ikasteen motibatze moduetan. Ikasle guztientzat egokiena den euskarri bakarra ez dagoenez, ezinbestekoa da inplikazio mota anitz eskaintzea (Alba, 2019; EducaDUA, d.g.).

IDUekin jarraituz, aipatzekoak dira, CAST erakundeak ingelesez dituen gidalerroak (2018) eta, baita ere, CASTen oinarrituz educaDUA plataformak gaztelaniaz IDUa hedatzeko dituenak, arestian aipatuak. Gidalerro horietan, adibidez, kontrol-zerrendak daude, irakasterakoan printzipio hauek martxan jartzen diren egiaztatu ahal izateko. Unibertsitatean ere, gidak sortu dituzte gradu anitzetan printzipio hauek kontuan hartuz (Crue, Universidades Españolas, d. g.). Bestalde, teknologiaren erabilera ez da guztiz beharrezkoa, baina egia da IDUren printzipioei teknologia gehitzeak curriculumak pertsonalizatzen lagundu dezakeela. Ikus, adibidez, Márquez-ek (2018) sortu zuen *Rueda Dua diagrama*. Bertan, aplikazio eta tresna digitalak, webguneak eta hardware-baliabideak bildu eta antolatu dira, IDUaren hiru printzipioetan oinarrituta. Diagrama edo gurrupila nola erabili jakiteko argitalpen bat sortu zuten Down Españako elkarteek (Díaz Orgaz, 2022).

*Irakurketa Errazak* (IE) idatzizko informazioaren irisgarritasun kognitiboari egiten dio erreferentzia eta barne hartzen ditu ilustrazioak, irudiak eta diseinuaren formatuak (FEMP - Instituto Lectura Fácil, 2017). *Lectura Fácil* deritzo gaztelaniaz eta *Easy Reading* ingelesez (Becker, 2019). Irakurtzeko zailtasunak dituzten pertsonak ulertzeko moduan idazteko erabiltzen den metodologia da, eta beharrezkotzat jotzen da biztanleen % 30ak irakurtzeko zailtasunak dituelako, irakurtzeko aukera ematen duelako, e.a. . Metodologia edo formatu honen bidez idazteko jarraibideak IFLA erakundeak eman izan ditu, edukiari, hizkuntzari eta formari dagokienez, gaztelaniazko bertsioa dago (Nomura *et al.*, 2012; Asociación Lectura Fácil, d.g.) eta UNE 153101:2018EX araua sortu dute, idazketarako, diseinurako eta baliozkotzerako (Delgado Santos eta Rodríguez Rubio de la Torre, 2018).

*Hizkera Argiak*, ahozko eta idatzizko informazioaren irisgarritasun kognitiboari egiten dio erreferentzia. Mezua ulergarria izatea bilatzen da, eta egokitzeko prozesua errazagoa da, IEarekin konparatuz (FEMP - Instituto Lectura Fácil, 2017). Gaztelaniaz *lenguaje claro*, *lenguaje llano* edo *lenguaje ciudadano* deitua eta ingelesez *Plain Language* edo *Plain English* (Becker, 2019). Euskaraz, IVAPek (2020) badu Hizkera Argirako blog bat (<https://www.ivap.euskadi.eus/administrazio-hizkera-argia>), eta bertatik langile publikoek zein bestelako herritarrei testu ulergarri eta kalitatezkoak idazten laguntzen diete.

*Komunikazio Sistema Handigarriak edo/eta ordezkioak* (KSHO) "mintzamenaren beste-lako adierazpideak dira, eta adierazpen-maila (handigarria) eta/edo pertsona batzuek arlo horretan dituzten komunikazio-zailtasunak konpentsatzea (ordezkioa) dute helburu" (Eusko Jaurlaritza, 2022b, 5. or.), eta protokoloa jarri da martxan unibertsitatez kanpoko ikastetxeetan. Aipagarria da ARASAAC proiektua (<https://arasaac.org/about-us>); piktogramekin lagundutako irakurketarako hainbat sinbolo eta baliabide eskaintzen ditu.

### 3. BIZIALDI OSOKO IKASKUNTZA, HIZKUNTZAK IKASTEA ETA HELDUEK EUSKARA IKASTEA, HLBP-REN TESTUINGURUAN

Hizkuntzak ikastea aukera bat da bizialdi osoko ikaskuntzan. Hainbat heldu ari da euskara ikasten Euskal Herrian zein Euskal Herrietik kanpo; halaber, badaude beste hizkuntzetako ikasle helduak Erkidego Autonomoan. Hala ere, Euskadiko Kontseiluaren (2022) arabera, Euskadik herritarren bizitzan zeharreko ikaskuntza sustatzeko lege- eta antolaketa-tresnak dituen arren, parte hartzea baxua da oraindik, eta diagnostiko orokorra egitea proposatu zuen.

Hizkuntzak eta kultura irakasten dituzte British Council eta Instituto Cervantes bezalako erakunde publikoek, ingelesa lehenengoak eta gaztelania bigarrenak. Konferentzia-ziklo bat antolatu zuten (Instituto Cervantes, 2023). Bi erakundeetako ordezkariak aipatu zuten, hizkuntzen ikaskuntzak abantaila kognitiboak ditu eta ikasteko zailtasunak dituen ikasle bati hizkuntza gehigarri bat ikasteko aukera ukatzen zaionean, ikasle horri oinarritzko eskubide bat ukatzen zaio. Bestalde, ez dago oinarri zientifikorik esateko ikasteko zailtasunak dituztenei bigarren hizkuntza ikasteak kalte egingo diela, eta hortaz, gaitzetsi egin behar dira mitoak eta beldurrak. Gaineratzen dutenez, hizkuntzak ikastea ezin da izan pribilegio bat, ezta oztopo bat ere talde ahulenentzat, baizik eta denon eskura dagoen aukera izan behar da. Gainera, inklusioa hezkuntza-komunitate osoaren arduratzen hartuta, British Council erakunde bezala hainbat jardura bultzatzen ditu: kontzientziazioa egiaztatutako aniztasunaren dinamizatzaileak jarri, sinbolo baten erabilera ezgaitasunarekiko eta inguruko ezgaitasunaren erakundeak gonbidatzea, esperientziak partekatze besteak beste (British Council, d. g.).

Jakina da, gainera, hizkuntza gehigarri bat eskuratzeak aukerak sortzen dituela hezkuntza-, gizarte-, lan- eta kultura-arloetan. Bada, aukera horietaz baliatu ahal izateko, nahitaezkoa izaten da hizkuntza-gaitasuna egiaztatzea. Horrek esan nahi du hizkuntzen azterketak irisgarriak izan behar direla ezgaitasunak dituzten ikasleentzat eta egokitu egon behar direla ikasteko zailtasunak dituztenentzat (O' Brien, 2023). Azterketa hauek nolakoak izan daitezkeen jakiteko, begiratu daiteke Cambridgeko unibertsitateko *English Language Assessment* gunean "Special requirements" atala (<https://www.cambridgeenglish.org/help/special-requirements/>). Bertan daude irakasleei eta ikasleei begira jarritako azterketa-adibideak eta gidalerroak, entzumena, irakurketa, ahazkotasuna eta idazketa ebaluatze. Adibidez, ahazkotasunaren proba, "bikote faltsu" gisa jokatzeko duen bikotekide batekin azterketa; hau da, *dummy partner* formula deritzona erabiliz. Idazmenaren proban, esku-idazketa ulergarria ez denean (ikasteko zailtasun espezifikoko mota bat da hau), hauxe egiten da: azterketa zentroko transkribatzaileari irakurri ahal zaio azterketaren amaieran; puntuazioa ere irakurri egiten zaio. Transkribatzaileak zehatz idazten du gramatika, ortografia edo puntuazioa, akatsak barne.

Helduen euskalduntzeari erreparatzen badiogu, Euskal Autonomiako Erkidegoan HABEK bere erregistroan dauden euskaltegien eta autoikaskuntza-zentroen jarduna zedarritua du Helduen Euskalduntzearen Oinarritzko Curriculumaren bitartez. Erakunde bakoitzak oinarritzko curriculum hori egokitu egin behar du, eta Euskaltegiaren Curriculum Proiektuan islatu. Hortaz aparte, HABEK euskara-mailen egiaztatze gintza ere kudeatzen du. Hala, 2020ko irailaren 9ko Aginduan eta, ondoren, hori zehazteko urtero argitara ematen den Ebazpenean (2023ko abenduakoa,

esaterako), desgaitasunen bat duten ikasleen egoerak aurreikusita daude berdintasuna berma dadin, hala nola prozedurak, proben ezaugarrien egokitzapenak edota egiaztagiri-ereduak.

Aipatutako Aginduaren IV. kapituluan proben egokitzapena nola egingo den zehaztuta dago, eta bertan ageri dira desgaitasunen bat duten ikasleentzako egiaztatze-proben ezaugarriak, egokitze neurriak, beharrezkoak diren baliabide teknikoak eta jarraibideak (hipoakusia dutenentzat, ikusteko gaitasuna mugatuta dutenentzat eta ezagutzaren gaineko gaitasuna mugatuta dutenentzat). Halaber, Ebazpenaren arabera, zentroek aurretiaz egokitu beharko dituzte prozesu horien oinarriak, jarraibideak, gaiak, ebaluazioak eta egiaztatze-gintzako probak. Gainera, “Irakurketa erraza” arauak jarraituko dituztela aipatzen da. Zehaztuta daude, baita ere, matrikula egitean erantsi beharreko agiriak (desgaitasunaren eta horren graduaren ziurtagiri ofiziala eta ikaslearen adierazpena, proba egiteko eskatzen dituen neurri zehatzak azalduz, baldintzei edo materialei dagokienez).

Bestalde, 2020ko Aginduko VIII. kapituluan desgaitasunen bat dutenentzako berariazko egiaztagiri-ereduak diseinatuko direla aipatzen da (28. or.). Honela, hizkuntzaren erabileran makrotrebetasun komunikatibo jakin bat garatzeko ezintasuna dagoenean, trebetasun horren kalifikazioa ebaluatu gabe agertuko da, eta kalifikazio orokorra beste makrotrebetasunetan erdietsitako kalifikazioetatik ateratzen da.

Arestian esandakoari jarraikiz, berriz aipatzen dira berariazko egoerako 2023ko abenduaren 21eko Ebazpenean (106. or.): “egokitzapen jakinak behar dituzten pertsonen kasuan, HABEk beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu, desgaitasunen bat duten pertsona horien aukera-berdintasuna bermatzeko; baina, probaren edukia desitxuratu gabe eta exijitzen den gaitasun-maila jaitsi edo murriztu gabe”. Gainera,

“Entzumen- eta mintzamen-gaitasuna nabarmen eta etengabe mugaturik duten pertsonen % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna aitortuta baldin badute arrazoi horienatik, B1 eta B2 mailetako irakurmeneko eta idazmeneko hizkuntza-trebetasunak partzialki egiaztatze aukera izango dute, matrikula egiteko unean matrikularen prezioa % 50 murriztuta. Zatikako gaitasun-proba gainditzeko, beharrezkoa izango da trebetasun horiek gainditzeko ezarrita dauden gutxieneko kalifikazioak erdiestea”.

Azkenik, azpimarratzekoa da urriaren 10eko 1/2103 Legeak bizialdi osoko orientazio-sistema bateratua planteatu zuela eta, bertan, administrazioek zerbitzu horietan langile egokiak jarri beharko dituztela esaten zela, bai eta Euskal sistemaren eragileetako bat HABE zela. Baina, egiari zor, oraindik orain ez dago orientatzaileerik Euskadiko bizitza osoko ikaskuntzaren hainbat zentroetan, adibidez musika-kontserbatorioetan, dantza-zentroetan, arte dramatikoko zentroetan, eta Arte Plastikoetan eta Diseinu-zentroetan (Gutiérrez-Crespo, 2020). Gauza bera gertatzen da hizkuntza-zentroetan eta HABEren esparruan, hau da, euskaltegietan eta euskararen autoikaskuntzarako zentroetan.

#### 4. ONDORIOAK

Artikuluaren zehar adierazi den legez, kontuan izan behar dugu bizialdi guztiko ikaskuntzako beste hainbat erakundetan ez dagoela orientazio-sailik; EAeko euskalgintzako erakundeak egoera horretan daude. Ondorioz, ez dago bermatuta HLBP dutenen irakaskuntza, azterketa-sistema, irisgarritasun eta orientazio egokia. Trantsiziorako oso interesgarria izan daiteke Red Sapdu (2020) argitalpena.

HLBP ikasleekin jarduteko protokoloetan bat etortzea ondo egongo litzateke. Adibidez, unibertsitatez kanpoko ikastetxeetan gaitasun handien protokoloa jarri da martxan 22-23 ikasturtean; izan ere, gaitasun handiak bizialdi osoko ikaskuntzan ere zainduta egotea garrantzitsua da. Berdin gertatzen da KSHO Protokoloarekin. Hortaz, dena bateratuta eta eguneratuta egotea ezinbestekoa da.



Prozedura zabalagoa eta esplizituagoa komenigarria litzateke HLBPkiko bizitzan zehar eginko ikasketetan. Izan ere, EHUn ikusi dugunez, hiru eremutan ematen da orientazioa HLBPari erantzuteko: ikasleen harreraren, curriculumaren ikasketetan eta egokitzapenetan. Euskaldungintzan ere, prozedura zabal hori aintzat hartzea egokia litzateke. Adibidez, ikasleen harrerarako gidak eta irakasleei zuzendutako gidalerro orokorrak eta espezifikokoak argitaratzea positiboa litzateke, EHUK eginkoari jarraituz. Bestetik, curriculum esplizitoki IDUren estrategia bidez planteatzea gaur egungo paradigmarekin bat joango litzateke. Horretarako, irakasleek IDUa, IEn formatoa, Hizkera Argia eta KSHO ezagutzea eta gaitzea komeniko litzateke. IDUren adibidea izan daiteke CRUE (2023) argitalpena. Bestetik, esplizitu egiteak suposatuko luke egokitzapenak euskalgintzaren webguneetan ere eskura egotea, *Cambridgeko* webgunean bezala. Horrela, ezgaitasunak, ikasteko zailtasunak eta/edo baldintza bereziak dituzten pertsonen errazago jakingo lukete nolakoak izango diren ikasketen prozesuak eta ebaluazioak/azterketak.

Bestalde, kontuan izan behar dugu DUK ez dituela laguntza teknikoaren beharrak automatikoki ezabatzen, ISEK (2019) txostenak dioen bezala. Gainera, IDUren garapena ez da dena edo ezer ez, ekintza xumeak eginez hasi gaitzke, Carmen Coutok dioen bezala (Fevas, 2023a).

Gogoan izatekoa ere bada HABEren erregistroan dauden euskaltegietan eta autoikasuntza-zentroetan euskara ikastera edo hobetzera doazenak 16 urtetik gorakoak direla; alegia, alde aurretik ikastetxeetatik pasatutakoak direla. Gogora dezagun Euskadiko ikastetxeei dagokienez, orain dela gutxi hasi direla unibertsitatez kanpoko mailetan 2. erregistroan sartzen ikasleak; ondorioz, kopuru handia dago oraindik identifikatu gabe. Gainera, hutsune handia dago euskaraz identifikatzeko testetan, gaztelaniaz/ingelesez dagoen test-kopurua konparatuz gero; orduan, zilegi da esatea euskaldunok HLBP bezala azpi-identifikatuta edo sasi-identifikatuta egon gaitzkeela eta irakasleek adi egon behar dutela. Atzerritik datozen ikasleek ere mota askotako behar bereziak izan ditzakete, ikusitako tipologia guztiei dagozkienak.

Erronkak handiak dira bizialdi osoko ikaskuntzan; hortaz, euskaldungintzan ere bai. Beraz, irakurle hori, "nondik hasiko naiz" izan daiteke une honetan buruan izango duzun galdera. *Fevas-Plena Inclusión Euskadiren* gidan (2023b) esaten den moduan, profesional irisgarria izanez. Edo beste galdera hau izan dezakezu buruan: "Nola jarraitu dezaket?". Erantzun bat izan daiteke ikasleari zer behar duen galdetzea eta berarekin laguntza-zerrenda bat osatzea.

Dena den, batzuetan zaila da amestea, egoera hobetzeko zer dagoen jakitea eta ezinbestekoa da ibilbide luzeagoa duten erakundeetan egiten dena aztertzea. Adibidez, IVAPen Hizkera Argirako argibideei jarraitzea eta IE formatuaren bidez infografiak eta aurkezpenak prestatzea eta irisgarritasunaren inguruan gehiago jakitea. Esate baterako, 2. irudian era irisgarrian jarritako infografia bat dago<sup>3</sup>. Infografia egiteko IE formatuko zenbait gida erabili dira<sup>4</sup>, FEVAsenaz gain (2023b) eta *Dyslexia friendly*-ren aholku batzuei ere jarraiki zaie<sup>5</sup>. *Piktochart* erreminta erabili da. Labur esanda, kognitiboki irisgarriak diren elementu hauek ditu infografiak:

<sup>3</sup> Infografia [Irakasbil atarian ere eskura](#) dago

<sup>4</sup> <https://inclusive.tki.org.nz/guides/>

<https://www.plenainclusion.org/publicaciones/buscador/guia-como-hacer-infografias-faciles-de-entender/>  
<https://www.plenainclusion.org/wp-content/uploads/2021/03/coleccion-de-infografias-faciles-de-entender.pdf>

<sup>5</sup> <https://dyslexiascotland.org.uk/wp-content/uploads/2023/02/DyslexiaFriendlyFormats.pdf>

<https://www.bdadyslexia.org.uk/advice/employers/creating-a-dyslexia-friendly-workplace/dyslexia-friendly-style-guide>

- 12 puntu edo gorako letra-tamaina erabili da.
- Open Sans letra mota (apaingarririk gabe edo serifa gabea).
- Irudiak ezkerrean jarri dira eta testua eskuineko aldean.
- Fondo argia erabili da (horixka gainera, dislexiarako lagungarria).
- Kontrastea dute letrek/irudiek eta fondoak.
- Lerroetan zehar hitz gutxi jarri da .
- Esaldi sinpleak erabili dira.
- Beltzez nabarmendu dira gako-hitzak.

Aipatzekoa da infografiak *Lectura Fácil Euskadi, Irakurketa Erraza* erakundeak emandako logoa lortu duela.

Ondo legokeen beste aukera bat: HLBP tipologiaren inguruan dauden elkarteak euskaltegietara gonbidatzea.

Bukatzeko, borondate ona saritzen eta elikatzen jarraitu behar da, finantzaketaz, formakuntzaz eta argitalpenaz. HLBPak behar bezala bideratuz gero, euskara inklusiboagoa egin daiteke eta euskal komunitatea handitu.

2. irudia. Infografia. Hezkuntza-laguntzak modu irisgarrian. (Egileak: Iruñe Ibarra eta Alex Mungia)



# Hezkuntza-laguntzak

- 

**1 Hezkuntza-laguntzak**

Bizitza osoan zehar baldintza onetan ikasteko, baturuetan hezkuntza-laguntzak behar dira. Ikasten den toki guztietan **laguntzak inklusiboak** eta **irisgarriak** izan behar dira.
- 

**2 Inklusioa**

Inklusioa kontuan hartzeak esan nahi du denok...

  - \* **desberdinak gairela**
  - \* **eskuibideak ditugula**
  - \* **aukeraren berdintasuna dugula**
  - \* **indarguneak ditugula**
  - \* **hezkuntza-laguntza beharra izan dezakegula aldi baterako edo betirako.**
- 

**3 Irisgarria**

Ikasten duguna **irisgarria** izateak, zer nahi du esan?

**Ikaskuntzaren Diseinu Unibertsala** kontuan hartzea, hau da:

  - \* informazioa ulertzeko modu asko egotea
  - \* jakintza modu askotara erakutsi ahal izatea
  - \* ikasten jarraitu nahia modu askotara bultzatzea
- 

**4 Irakurketa Erraza**

**Irakurketa Erraza** formatua irakurmen- eta ulermen-zailtasunak dituzten pertsonentzat erabiltzen da. Formatu hori baldin bada, irudi hauekoren bat izango du liburua.
- 

**5 Hizkera Argia**

Hizkera-mota hau erakunde publikoek eta enpresa handiek erabiltzen dute, herritarrok informazio argia eta ulergarria jasotzeko. Esaldiak laburrak dira eta hitzak erraz ulertzekoak.
- 

**6 Adin eta ikasketa guztietan**

**Adin guztietan** esan nahi du umeta, nerabea, gaztea, heldua, adinekoa izanda hezkuntza-laguntzak eskatu ahal direla.

**Ikasketa guztietan** esan nahi du ikasketa-maila guztietan egon behar direla baldintza egokiak.
- 

**7 Erronkak**

Erronkak handiak dira **ikastetxeetan eta gizarteetan, euskalgintzan** ere bai.

Denon artean jarraitu behar da lanean:

  - \* orientazio-sailak sortzen eta sendotzen
  - \* formakuntzak izaten
  - \* sarean lan egiten
  - \* dirulaguntzak handitzen.
- 

**8 Eskerrik asko!**

Piktogramak erabiliz ere testuak irisgarriak dira. Piktograma honek **Eskerrik asko!** esan nahi du. Eskerrik asko euskara-irakasle irisgarria izateagatik! Eskerrik asko euskara-ikasle irisgarria izateagatik!

**Euskarak guztion beharra du.**

Egileak: Iruñe Ibarra Lizundia eta Alex Mungia Ederrete  
 Iturria: HubsSpot Piktogramak  
 Irudiak: Freepress.com/ irasaac.org eta Lectura Fácil Euskadi-Irakurketa Erraza

**Bibliografia eta erreferentziak**

- 1/2013 Errege Lege Dekretua, azaroaren 29koa, se aprueba el Texto Refundido de la Ley General de derechos de las personas con discapacidad y de su inclusión social. Boletín Oficial del Estado, Madril, 2013ko abenduaren 3koa, 289. zenbakia.  
<https://www.boe.es/eli/es/rdlg/2013/11/29/1/con>
- 6/2022 Legea, martxoaren 31koa, "modificación del Texto Refundido de la Ley General de derechos de las personas con discapacidad y de su inclusión social, aprobado por el Real Decreto Legislativo 1/2013, de 29 de noviembre, para establecer y regular la accesibilidad cognitiva y sus condiciones de exigencia y aplicación". Boletín Oficial del Estado, Madril, 2022 apirilaren 1ekoa, 78. zenbakia.  
<https://www.boe.es/eli/es/l/2022/03/31/6>
- 888/2022 Errege Dekretua, urriaren 18koa, desgaitasun-maila aitortu, deklaratu eta kalifikatzeko prozedura ezartzen duena. Boletín Oficial del Estado, Madril, 2022ko urriaren 20koa, 252. zenbakia.  
<https://www.boe.es/eli/es/rd/2022/10/18/888>
- 1/2013 Legea, 2013ko urriaren 10ekoa, Bizialdi Osoko Ikaskuntzari buruzkoa. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria. Gasteiz, 2013ko urriaren 17a, 199. zenbakia.  
<https://www.legegunea.euskadi.eus/eli/es-pv/l/2013/10/10/1/dof/eus/html/webleg00-contfich/eu>
- Agindua, 2020ko irailaren 9koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, euskarazko komunikagaitasun-mailen ebaluazioa eta egiaztagintza arautzen dituena, eta euskara-ikasle helduentzako dirulaguntzen deialdiarako irizpideak finkatzen dituena. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria. Gasteiz, 2020ko irailaren 28koa, 191. zenbakia. [https://www.euskadi.eus/eli/es-pv/o/2020/09/09/\(2\)/dof/eus/html/web01-ejeduki/eu/](https://www.euskadi.eus/eli/es-pv/o/2020/09/09/(2)/dof/eus/html/web01-ejeduki/eu/)
- Ebazpena, 2020ko uztailaren 10ekoa, Hezkuntzako sailburuordearena, Hezkuntza Sailaren mendeko funts publikoekin finantzaturako unibertsitatez kanpoko ikastetxei jakinarazteko hezkuntza-laguntzako premia espezifikoetako (HPB) ikasleei buruzko informazioa biltzeko eta antzolatze prozedura berria, eskola inklusiboaren esparruan.  
[https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/inn\\_edu\\_inc\\_neapoyoeducativo/eu\\_def/adjuntos/NEE\\_Resolucion\\_recogida\\_organizacion\\_informacion\\_alumnado\\_10\\_julio\\_2020\\_e.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/inn_edu_inc_neapoyoeducativo/eu_def/adjuntos/NEE_Resolucion_recogida_organizacion_informacion_alumnado_10_julio_2020_e.pdf)
- Ebazpena. 2023ko abenduaren 21ekoa, HABEko zuzendariarena, HABEren Erregistroan inskribatuta dauden euskaltegi-tako eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuetako ikasleek 2023-2024 ikasturtean euskaltegi mailaren atalasearen gaineko ebaluazioan oinarrituta Helduen Euskalduntzearen Oinarriko Curriculumaren (HEOCaren) zein maila egiaztatu ahal izango dituzten ezarri, eta 2024ko azterketa-deialdia egiten duena. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria. Gasteiz, 2024ko urtarrilaren 10ekoa, 7. zenbakia.  
<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/01/2400106e.shtml>
- Alba, C. (2019). Diseño Universal para el Aprendizaje: un modelo teórico-práctico para una educación inclusiva de calidad. *Participación educativa*, 6(9), 55-66.  
<http://hdl.handle.net/11162/190783>
- Asociación Lectura Fácil. (d.g.). *¿Qué es la Lectura Fácil (LF)?*. Hemendik berreskuratua 2024ko otsailaren 16an: <https://www.lecturafacil.net/es/info/1-que-es-la-lectura-facil-lf/>
- Becker, L. (2019). Lenguaje claro/llano/ciudadano y lectura fácil: ¿nuevas variedades de comunicación digital de masas más allá del español general/común/total o internacional/neutro? In S. Greusslich eta F. Lebsanft (Ed.), *El español, lengua pluricéntrica* (223-250 orr.). Vandenhoeck & Ruprecht.
- British Council. (d. g.). *Promoting inclusion. A British Council guide to disability equality*.  
<https://www.britishcouncil.pl/sites/default/files/guide-disability-equality.pdf>
- Cambridge. English Language Assessment. (d. g.). *Special requirements*. Hemendik berreskuratua 2024ko otsailaren 16an:  
<https://www.cambridgeenglish.org/help/special-requirements/>
- CAST. (2018). *Universal Design for Learning Guidelines version 2.2*. <http://udlguidelines.cast.org>
- Cerna, L. (2023, otsailaren 3a). Equity and Inclusion in Education: finding strength through diversity. *OECD Education and Skills Today*.  
<https://oecdeditoday.com/equity-and-inclusion-in-education/>
- Conferencia de Rectores de las Universidades Españolas CRUE. (2014). *Formación Curricular en Diseño para Todas las Personas en Pedagogía*.  
<https://www.crue.org/wp-content/uploads/2020/02/Formaci%C3%B3n-curricular-en-dise%C3%B1o-para-todas-las-personas-Pedagog%C3%ADa.pdf>

- Crue Universidades Españolas. (d.g.). *Formación Curricular en Diseño para todas las personas*. Hemendik berreskuratua 2024ko otsailaren 16an: <https://www.crue.org/publicacion/formacion-curricular-en-diseno-para-todas-las-personas/>
- Delgado Santos, C. L. eta Rodríguez Rubio de la Torre, M. (2018). Primera norma técnica sobre Lectura Fácil. *UNE, la Revista de la Normalización Española*, 4. <https://revista.une.org/4/primera-norma-tecnica-sobre-lectura-facil.html>
- Díaz Orgaz, M. (koord.). (2022). *Guía Rueda DUA: Herramientas para el Diseño Universal para el Aprendizaje*. Down España. [https://creamosinclusion.com/educacion-inclusiva/wp-content/uploads/sites/2/2022/09/DUA\\_2022\\_03.pdf](https://creamosinclusion.com/educacion-inclusiva/wp-content/uploads/sites/2/2022/09/DUA_2022_03.pdf)
- EducaDUA. (d.g.). *Documentos sobre las pautas para el Diseño Universal para el Aprendizaje*. Hemendik berreskuratua 2024ko otsailaren 16an: [https://www.educadua.es/html/dua/pautasDUA/dua\\_pautas.html](https://www.educadua.es/html/dua/pautasDUA/dua_pautas.html)
- Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen saila. (d. g.). *Hezkuntza-laguntzako berariazko premiak*. Hemendik berreskuratua 2024ko otsailaren 16an: [https://www.euskadi.eus/berariazko-hezkuntza-laguntza-premiak\\_eu/web01-a2inguru/eu/](https://www.euskadi.eus/berariazko-hezkuntza-laguntza-premiak_eu/web01-a2inguru/eu/)
- European Parliamentary Research Service. (d. g.). *Lifelong learning in the EU*. <https://www.europarl.europa.eu/thinktank/infographics/lifelonglearning/>
- Euskadiko Eskola Kontseilua. (2022). *Hezkuntza Euskadin. 2019-2021 Txostena*. <https://consejoescolardeeuskadi.hezkuntza.net/documentos/17937/8247438/HEZKUNTZA+EUSKADIN.+2019-21.pdf/811a754c-e79e-d520-77c0-7f504ab52ede>
- Euskaltzaindia. (d.g.). *Berariazko*. In *Euskaltzaindiaren Hiztegia*. Hemendik berreskuratua 2023ko azaroaren 18an: <https://labur.eus/pI7WD>
- Euskal Herriko Unibertsitatea. (d. g.). *Inclusión. La inclusión en la UPV/EHU: guía para el profesorado*. <https://www.ehu.es/documents/2241153/12524430/LA+INCLUSI%C3%93N+EN+LA+UPVEHU+Gu%C3%A1+para+el+profesorado.pdf/37854f93-59a6-02e9-35b0-512eaa9932c7?t=1562770246000>
- Euskal Herriko Unibertsitatea. Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzua. (d. g.). *Desgaitasunak edo/eta hezkuntza premiak bereziak dituzten ikasleen inguruko zifrak UPV/EHUn*. Hemendik berreskuratua 2024ko otsailaren 16an: <https://www.ehu.es/eu/web/discapacidad//ehu-eta-ezgaitasuna-zenbakitan#Desgaitasunakedo/et8>
- Eusko Jaurlaritzak. (2019). *Hezkuntza berritzatzeko zuzendariaren jarraibideak, hezkuntza-laguntzako premia espezifikokoak dituzten ikasleei baliabide personal espezifikokoak esleitzeko prozedurari buruzkoak*. [https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/inn\\_edu\\_inc\\_neapoyoeducativo/eu\\_def/adjuntos/2019-03-13\\_hlpe\\_baliabideen\\_esleipena\\_e.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/inn_edu_inc_neapoyoeducativo/eu_def/adjuntos/2019-03-13_hlpe_baliabideen_esleipena_e.pdf)
- Eusko Jaurlaritzak. Hezkuntza Saila. (2022a). *Eskola Inklusiboa garatzeko esparru plana 2019-2022*. Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzu Nagusia. [https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/inn\\_doc\\_esc\\_inclusiva/eu\\_def/adjuntos/eskola-inklusihoa/Plan\\_Marco\\_Escuela\\_Inclusiva\\_2019\\_2022\\_e.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/inn_doc_esc_inclusiva/eu_def/adjuntos/eskola-inklusihoa/Plan_Marco_Escuela_Inclusiva_2019_2022_e.pdf)
- Eusko Jaurlaritzak. Hezkuntza Saila (2022b). *Hezkuntza-sisteman "Komunikazio Sistema Handigarriak edo/eta Ordezkoak" (KSHO) inplementatzeko protokoloa*. Argitalpen Zerbitzu Nagusia. [https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/inn\\_edu\\_inc\\_neapoyoeducativo/eu\\_def/adjuntos/Protocolo\\_SAACS\\_e.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/inn_edu_inc_neapoyoeducativo/eu_def/adjuntos/Protocolo_SAACS_e.pdf)
- Federación Española de Municipios y Provincias (FEMP) - Instituto Lectura Fácil. (2017). *Accesibilidad Cognitiva, Lectura Fácil y Lenguaje Claro en la Administración Pública Local*. [http://femp.femp.es/files/566-2182-archivo/Documento%20Accesibilidad%20Cognitiva%20Lectura%20F%C3%A1cil%20y%20Lenguaje%20Claro%20en%20la%20Administraci%C3%B3n%20P%C3%BAblica%20Local%20\(Final%20a%20Web%20y%20@\).pdf](http://femp.femp.es/files/566-2182-archivo/Documento%20Accesibilidad%20Cognitiva%20Lectura%20F%C3%A1cil%20y%20Lenguaje%20Claro%20en%20la%20Administraci%C3%B3n%20P%C3%BAblica%20Local%20(Final%20a%20Web%20y%20@).pdf)
- ISEK (Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseilua). (2020). *Irisgarritasun Unibertsalaren Euskadiko Estrategia*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. [https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/cvpa\\_estrategia\\_universal/eu\\_cvpa/adjuntos/estr\\_accesibilidad\\_eu.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/cvpa_estrategia_universal/eu_cvpa/adjuntos/estr_accesibilidad_eu.pdf)
- Fevas Plena Inclusión Euskadi (2023a). *El Diseño Universal para el Aprendizaje rompe la dicotomía discapacidad-no discapacidad. Ikasketarako Diseinu Unibertsalaren urritasun-ez urritasun dikotomia apurten du*. In, 15, 9-11. [https://fevas.org/wp-content/uploads/2023/04/Revista\\_In15\\_Online.pdf](https://fevas.org/wp-content/uploads/2023/04/Revista_In15_Online.pdf)
- Fevas-Plena Inclusión Euskadi. (2023b). *Irisgarritasun kognitiboa. Egin bat erronkarekin!* Hemendi eskuratua 2024ko otsailaren 7an: <https://fevas.org/wp-content/uploads/2023/09/Irisgarritasun-kognitiboa-Egin-bat-erronkarekin.pdf>
- Gutiérrez-Crespo, E. (koord.). (2020). *Informe: Orientación en las comunidades autónomas*. Confederación de Organizaciones de Psicopedagogía y Orientación de España. <https://copoe.org/comunicados-investigaciones/investigaciones/item/informe-orientacion-en-las-comunidades-autonomas>

- Instituto Cervantes. (2023, otsailaren 28a). El Instituto Cervantes y el British Council buscan facilitar el aprendizaje de idiomas a las personas con discapacidad. <https://cervantes.org/es/sobre-nosotros/sala-prensa/notas-prensa/instituto-cervantes-british-council-buscan-facilitar>
- Márquez, A. (2018, otsailaren 10a). La Rueda del DUA\_V3 2022. Actualización de recursos para derribar barreras a la participación. *Si es por el maestro... Antonio Márquez*. <https://www.antonioamarquez.com/la-rueda-del-dua-recursos-para-derribar/>
- Nomura, M., Nielsen G. S. eta Tronbacke, B. (2012). *Directrices para materiales de lectura fácil*. Creacesible. <https://www.ifla.org/wp-content/uploads/2019/05/assets/hq/publications/professional-report/120-es.pdf>
- O' Brien, E. (2023). *Inclusion and the right to learn a foreign language*. British Council eta Instituto Cervantes. [https://www.britishcouncil.es/sites/default/files/report\\_inclusion\\_and\\_the\\_right\\_to\\_learn\\_a\\_foreign\\_language.pdf](https://www.britishcouncil.es/sites/default/files/report_inclusion_and_the_right_to_learn_a_foreign_language.pdf)
- Orientasare. (d.g.,a). *Berariazko laguntzak*. Hemendik berreskuratua 2023ko azaroaren 30ean: <https://sites.google.com/site/orientasare/hezkuntza-premia-bereziak?authuser=0>
- Orientasare (d. g. b). *IDU / DUA*. Hemendik berreskuratua 2023ko azaroaren 30ean: <https://sites.google.com/site/orientasare/aniztasuna/idu> Red Sapdu. (2020). *Guía de buenas prácticas para la transición, el acceso y la acogida del alumnado con necesidad específica de apoyo educativo en los estudios universitarios*. Crue Universidades Españolas. [https://www.crue.org/wp-content/uploads/2021/05/GUI%CC%81A-SAPDU\\_DIGITAL.pdf](https://www.crue.org/wp-content/uploads/2021/05/GUI%CC%81A-SAPDU_DIGITAL.pdf)
- Rodríguez Infante, G. eta Arroyo Panadero, D. (Koord.). (2017). *Guía de adaptaciones en la universidad*. Fundación ONCE/Vía Libre. <https://biblioteca.fundaciononce.es/publicaciones/otras-editoriales/publicaciones-participadas/guia-de-adaptaciones-en-la-universidad>
- Vigara Cerrato, A., Delgado Santos, C. I., Larraz Istúriz, C., Vázquez Sánchez, I., Pérez-Castilla Álvarez, L. eta Regatos Soriano, R. (2023). *10 fichas sobre la accesibilidad cognitiva por derecho*. Ceapat. Centro de Referencia Estatal de Autonomía Personal y Ayudas Técnicas. [https://ceapat.imserso.es/publicaciones/informe-publicacion/-/asset\\_publisher/jbbrNfFLTbpz/content/10-fichas-sobre-la-accesibilidad-cognitiva-por-derecho/20123](https://ceapat.imserso.es/publicaciones/informe-publicacion/-/asset_publisher/jbbrNfFLTbpz/content/10-fichas-sobre-la-accesibilidad-cognitiva-por-derecho/20123)

## Gehiago jakiteko

- Behatuz. Gizarte Zerbitzuen Euskal Behatokia. (d.g.) *Ezagutuz. Zentroen eta gizarte-zerbitzuen direktorioa* <https://www.behatuz.eus/es/directorio-entidades/>
- Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Saila. (d. g.). *Hezkuntza inklusiboa eta aniztasunari arreta*. Hemendik berreskuratua 2024ko otsailaren 16an: <https://www.euskadi.eus/hezkuntza-inkluisiboa-aniztasunaren-trataera/web01-a3hinklu/eu/>
- Eusko Jaurlaritza. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. (d. g.). *Irisgarritasun unibertsalaren Euskadiko Estrategia*. Hemendik berreskuratua 2024ko otsailaren 16an: <https://www.euskadi.eus/irisgarritasun-unibertsalaren-euskadiko-estrategia/web01-a2aces/eu/>
- Franklin, J. (2023). *Equality Policy. October 2023*. British Council. <https://www.britishcouncil.org/sites/default/files/equality-policy-2023-jan2024.pdf>
- Fundación ONCE. (d.g.). *Guía Universitaria para estudiantes con discapacidad*. <https://guiauniversitaria.fundaciononce.es/>
- ISEK. Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseilua. (2020). *ISEK. Urteko Txostena 2019. urtea*. <https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/cap-y-documen-publicaciones/eu/cvpadp/adjuntos/memoria-cvpa-2019-eu.pdf>
- ISEK. Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseilua. (2021). *Irisgarritasun Unibertsalaren Euskadiko Estrategiaren Ekintza Plana*. [https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/cvpa-estrategia-universal/eu/cvpa/adjuntos/plan\\_accion\\_eu.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/cvpa-estrategia-universal/eu/cvpa/adjuntos/plan_accion_eu.pdf)
- Lectura Fácil Euskadi, Irakurketa Erraza. (d. g.). *Lectura Fácil Euskadi, Irakurketa Erraza*. <https://lecturafacileuskadi.net/>
- Universidad de Granada. Vicerrectorado de Igualdad, Inclusión y Compromiso Social. (d.g.). *Atención al Estudiantado con Discapacidad y otras Necesidades Específicas de Apoyo Educativo (NEAE)*. <https://viis.ugr.es/areas/inclusion/recursos/nea>